

BALIO PROPOSAMENA

Pertsona askok arazo edo behar handi bati aurre egiten diote: mugimenduan dauden bitartean (txirrindularitza, kanpaldia edo bidai luzeak egiteko uneetan), energia iturri eskuragarririk ez izatea. Egoera horietan, telefono mugikorrak, GPS gailuak, aurikularrak, argiak edo bestelako tresna elektronikoak energia agortu dezakete, eta horrek segurtasuna, komunikazioa eta esperientzia orokorra arriskuan jar dezake.

Guk, arazo eta behar horiek konpontzeko asmoarekin, irtenbide berritzaile bat garatzen dugu: energia mugikor eta jasangarria sortzeko eta gordetzeko sistema bat, erabiltzaileen mugimenduekin bateragarria eta ingurumenarekiko arduratsua dena. Mugimenduzko energia harrapatzea: Pisu arineko mekanismoak sortu daitezke, adibidez, motxilen gorabeheraz sortzen den mugimendua energia bihurtzen dutenak.

- **Bateri eramangarri eta trinkoak:** Energia sortzearekin batera, sortutakoa gordetzeko ahalmen handiko, baina trinkoak eta arinak diren bateriak proposatzen ditugu. Hauek hainbat portu izan ditzakete (USB, USB-C, etab.) hainbat gailu kargatzeko.
- **Energia kudeatzeko teknologia adimenduna:** Bateriak automatikoki energia erabilgarritasun mailaren arabera kudeatzeko gai dira, gailu bakoitzaren beharretara egokituz.
- Teknologia honek karbono-aztarna murriztea du helburu, energia fosiletan oinarritu beharrean, erabiltzaileen mugimendua eta energia berriztagarriak baliatuz.
- Material birziklagarri eta iraunkorretan oinarritzea, produktua ingurumenarekiko arduratsua izan dadin.